

bidegileak



Imanol Apalategi Aita Bonifazio Ataun (1901-1984)

Egilea:

JEXUX AIZPURUA BARANDIARAN

Haurtzaroa

M Manuel Maria Apalategi Zurutuza, Ataungo Murkondo auzoko *Sabiaga* baserrian jaio zen 1901. urteko apirilaren 13an, arratsaldeko 17:30etan. Gurasoak: Felipe Apalategi Albisu (30 urte) eta Josefa Antonia Zurutuza Arratibel (26 urte). Aitaren aldeko aitona-amonak: Joxe Martin Apalategi (+) eta Frantziska Albisu; *Sabiagan* bertan bizi zen amandrea. Eta amaren aldekoak, berriz: Migel Antonio Zurutuza eta Joana Josefa Arratibel; amandrea *Peruneberri* baserrian bizi zen. Biharamunean bataiatu zuten San Gregorio parrokian,



Imanol Apalategi Aita Bonifazio Ataun (1901-1984)

Elizaldetxeko Fermin Imaz, arotza, eta *Urretako* Pedro Maria Kerejeta, lastaigilea lekuko zirela; bataiatzaile Kaxiano Garaialde, aita-ponteko Joxe Manuel Apalategi eta amapon-teko Josefa Zurutuza.

Ba omen zen behin Ataun izeneko herri txiki batean, *Sabiaga* deitzen zitzaien baserria. Garaiari dagokionez, XX. mendearen hasiera zen. Azkeneko gudate karlista (1876) amaitu zaharra ez. Guda guztien ondoren bezala, jateko urri eta jale asko; aiton-amonak, gurasoak, seme-alabak, izeba-osabak eta, hainbat lekutan, morroia; horrelakoxea zen garai hartako familia.

Sabiaga baserria Ataungo Murkondo auzoaren gain aldean dago. Koka dezagun zehatz-mehatz. Ataun luzean Iparraldetik nahiz Hegoaldetik sartuta, San Gregorio auzora jo behar da. Han ibaia igaro eta ekialderantz hartu. Eliza ardatz bezala hartuta, berehalaxe topa dezakegu gaintxo batean, *Arratiñea* baserritik hurbil. Lehenik erreka ondoko leku fadurak bete ziren jendez, eta gerora leku aldapatsuak. Hau da *Sabiaga* baserriaren kokagunea. Baina gure lagunaren berri eman aurretik aipa dezagun, zertxobait bederen, garai hartako Ataun nolakoa zen eta ataundarrak bizimodua zertan ematen zuten.

Horretarako, *Sabiaga* baserritik hurbil, *Telleriazpikoa* baserrian jaiotako Joan Arin Dorronsoro bere auzokidearen *Industrias rurales en Ataun; la del lino y la de carbón* izeneko lana hartuko dugu oinarritzat.

Bertan oso ondo argituko dugu gure zalantza. Eta hasteko esan dezagun, linagintza eta ikazkintza zirela, batik bat, orduko langintzarik hedatuenak. Linagintza antzinako langintza da

Ataunen; 1691. urtean, dagoeneko, badira horri buruzko azalpenak, hara nola, *Larburu* baserrira alguazila bertako alaba Luzia Auzmendiren bila joan zenean, goizean mendira joana zela linotara, esan omen zioten. Ziurrenik Agautz mendi aldera, han baitziren linasoro batzuk. Baina linoa ereitea ez zen aski; bildu, prestatu eta euleari eraman behar zitzaien, honek ehun bihur zezan. Ondorioz, herrian baziren, garai hartan, sei ehule. Azkenekoa *Aranberri* baserrikoa, 1916ra arte iraun zuena. Beraz, besteak beste, eguneroko solasgaietako bat izango zen, ziurrenik, aipaturiko linagintza.

Ikazkintza ere oso zabaldua zegoen aspaldidantik. 1428an *Ola* edo *Olea* izeneko baserria bazen herrian; beraz, burdina lortzeko ikatza behar. Gertuagoko datuetan murgilduz, XX. mendearen hasieran, 1900. urtean hain zuzen, ikatz karga pezeta ordaintzen zen eta ikazkinnen hitzarmenketa San Gregorio egunez, martxoaren 12an, izaten zen, eta bertakoez gain zegamarrak-eta etorri ohi ziren enkante edo «ajuste» haietara. Urte haietan Ataunen ba omen ziren hamabi patruila edo talde. Urte batzuk lehentxeago, berriz, 400 lagun omen ziren langintza horretan zihardutenak.

Inguruari dagokionez, *Sabiaga* baserritik hurbil edo aurrez aurre zituen aita Bonifaziok lamina, basajaun eta sorginen inguruak. Han daude oraindik Muski, Leizadi eta erreka. Horretaz gain, etxean ere guraso eta aiton-



Ataungo Sabiaga baserria: jaiotetxea

-amonen kontu zaharrak han izango ziren artoa aletzerakoan eta afal-ondoreenetan.

Giro horretantxe hazi zen Manuel Apalategi haurra.

Sabiaga utzi eta Olaberriako *Garitaiñazpi* baserrira aldatu ziren 1905ean, etxeko nagusiak bidali egin zituelako; aitzak basoan gurpertia egiteko egurra botatzeagatik-edo. Han egin zituen lehenengo ikasketak, Frantzisko Kintana irakasle zuela.

Jose Kadena Eleta gotzainarengandik hartu zuen Sendotzako sakramentua Beasainen

1908ko ekainaren 28an. Lehen Jaunartzea, berriz, Olaberrian egin zuen 1911ko apirilaren 28an, Bizente Otamendiren eskutik, apaizburu Gabriel Agirre zela.

Garitaiñazpi baserria erre egin zen 1912ko uztailan eta anaia bertan kiskali eta ama haurduna aitzak atera zuen besoetan erreduraz jositak. Beasaingo *Zunzunegi* baserrira joan ziren bizi izatera, halabeharrez. Gertaera negargarri hark betirako zirrara eragin zion Imanoli eta Argentinako Mendozan zela paratu zituen *Sua* izeneko bertsook 1955eko apirilean:

Bertsoketan — Haciendo Versos

Por IMANOL DE SABIAGA

XABIERREN JAIK MENDOZAN

Ikusi gabe, inolaz ere
nik ezin sartu gogoan
alako jaia izango zanik
Andes mendien ondoan.
Egun ortatik Euskalerrria
zenbatek duten aotan!
Jai eder orren oroitz heroa
gorde bear de golkoan.

Ikusi ditu, txalotu are,
pozex Meendoza uriak
ikurriñaren ori-urdiña,
gorria eta zuria;
bi gurutze ta ondo gorritan,
adierazpen aundia!,
gure abenda, gure mendiak,
gure siniste guzia.

Xabierreko Pantzeska denak,
surtengo bere jai ortan,
arroitu ditu Cuyo aldeko
euskotar oron biotzak.
Oro dantzari, oro kantari,
ariñ zebiltzan gizonak.
Txistu-soñua entzun ezkeru,
nork geldu euki zangoak?

"Denak bat!" ota entzun dalarik
Mendoza uri aldean,
euskotar onak bildu zaizkizu
guziak talde batean.

FIESTAS JABIERINAS EN MENDOZA

Sin haberlo visto, de ninguna manera
hubiera yo podido creer
que una tal fiesta pudiera celebrarse
junto a los Andes.
Desde aquel día Euskalerrria
está en boca de muchos.
El cálido recuerdo de dicha fiesta
debe guardarse en el corazón.

Ha visto con alegría, y también
la ciudad de Mendoza [aplaudido,
de la bandera el verde,
el rojo y el blanco;
dos cruces sobre fondo rojo,
admirable símbolo,
nuestra raza, nuestros montes,
toda nuestra fe.

San Francisco de Xabier
en su fiesta de este año
ha sacudido los corazones
de los vascos de Cuyo.
Todos danzaban, todos cantaban,
se movían con agilidad los hombres.
En oyendo el sonido del "txistu"
¿quién podrá estar quieto?

Al oír el grito de "¡Todos unidos!"
en la ciudad de Mendoza,
los buenos vascos se han reunido
todos en un grupo.

Mendeak zitun amabi urte
nere adiñak amaika
Udako egun bero arixe
guziok eman arrika
Aizkorri eskubi Aralar ezker
hego aldetik atea
Mendi gañean zugaitz artean
bi bizitzako etxea
Atarietan gariak zabal
eguzki suak kixkortzen
Belar sorotan ebakirikan
belarrak ondu t'igartzen
Goiko ganbaran asiak ziran
garijotzeko lanetan
Besoak arin biotza pozez
ogi zuriren ustetan
Gari-balak sar, lasta-balak ken
gizon aundien iduri
Mutil koskorrak badabilzkizu
gora ta bera urduri
Ganbarerdian belartegia
belartegian belarra
Belar artantxe norbaitek piztu
zorigaiztoko sugarra
Joxantonio, mutil ederra
aitari balak urbiltzen
Lana utzita asi zan larri
Sua, Sua! Ots egiten
Sua, Sua da! Sua ganbaran!
Antxe negarrak, orroak
Kanpora denak! Kristauak lenen!
Beiak, txerriak, astoak...!
Tzir-tzir ta tzar-tzar! Kea ta garra
negargarrizko gauzea

Antxe kixkaldu bein da betiko
Garitaiñazpi etxea
Ama nun dabil? Galdetu aitag
-beeeko gelan ez al da?
Jauzi larrian leio zulotik
aita sartu zan bertara
Sugar atzetik bi besoetan
uraxe zama ederra!
Atera zigun ama bizirik
amaren baitan arreba!
Joxantonio nun ote degu?
Igesi joan ote da?
Jo-xan-to-nio, Jo-xan-to-nio!
Aren aztarnik ez, ez da
Ganbaran bertan gelditu al da?
Nork ikusi du irtetzen?
Gizagaixoa sutzar orretan
ari ote da erretzen?
Ai sua, sua, su gaizkillea!
Denak gaitzesten al aute!
Piztu orduko, zapaldu, busti,
ito ta itzali baintute...!
Gizonaren on egin induen
ongille uts dan Jainkoak
Orain, ordea, lapur, iltzalle
Nork esan ire gaiztoak?
Etxea kiskal, anaia erre
amatxo erre larritan...
Nola ez, bada, madarikatu
txikitan eta aunditan?
Ez da ikusiko baserrietan
geiago Gaitiñazpiko
Joxantonio erre zan eta
gan ez da iñor biziko!

Lazkaomendiko *Lizargarate* baserrira eraman zuten Imanol 1912ko abuztuan, morroi txiki. 1914ko ekainaren 20ko goizean Altsasuko kaputxinoetan sartu zen, gurasoek eraman zuten, Andres osaba kaputxinoak hartarako bideak egin eta gero, eta lau urte eman zituen hango ikasketetan.

Gero, 1918ko ekainaren 18an Zangozara joan zen eta arratsaldean bertan jantzi zuen kaputxinoen abitua eta, bere hartan eman zioten Ataungo Bonifazio Anaikide izena, Beriaingo

Joakin aita probintziala apaizburu zela. Bizitza guztian Ataun izena izan zuen nortasunaren ikur.

Hondarribian da 1919an. Ekainaren 18an iritsi zen Filosofia-ikaskintza egitera. Han hasi zen euskarazko lantxoak idazten. Berehala eman zioten haur euskaldunei kristau-ikasbidea erakusteko ardura.

Iruñean da 1922ko ekainaren 17an. Eta lehenengo egunetan idatzi zuen *Zeruko Argia*-rako «Sigmaringatar Fidel deuna» izeneko lantxoa.



Ikasketak (Iruñea). Beheko ilaran ezkerretik laugarrena

Iruñean ikasle zela, Lekarotza joan zen gaixo-alditik suspertzera 1924ko irailean. Berehalaxe, Kaputxinoen buruzagitzari idatzi zion bere berri emateko: gutunean tratamendu hidroterapeutikoa hartzen ari dela aipatzen du, aita Ladislaoren ardurapean. Bizipozez ondo eta pisuz ere irabazi egin duela dirudi. Iritsi bezain azkar, aita Ladislaok ikusi omen zuen eta ahul bilatu, hasi beharreko tratamendurako (goizez, jaiki berritan, igurzketa, eguerdian bainua eta arratsalde, berriro, bainua. Azeri isats eta zentauro izeneko belar-ura izan zuen janari bakarra eta esnea irinaz). Gutun horretan aipatzen dio baita ere buruzagiari, ea Lekarotzen bertan eskola batzuk har zitzakeen, ondoren azterketa Iruñean egin ahal izateko. 1926ko abuztuaren 9an itzuli zen Iruñera ikasketak jarraitzera.

Apaizgintza

Mateo Mujika gotzainak apaizturik, Lekarotza doa irakasle 1927an, Aritmetika, Geografia, Latina, Euskara eta Gaztelania arloetan. 1932-33 Donostian izan eta berriro Lekarotzera Erlijioa, Merkataritza Kalkulua, Euskara eta euskarazko katekesia erakustera, 1935eko abuztura arte. 1935eko abuztuaren 16an Hondarribiara 1936ko abuztura arte.

Irakasletzan ez ezik, sermolaritzan ere izugarrizko lana eta arrakasta izan zuen. 1928an hasi zen Lekarotzen bertako elizkizunetan eta Goi-hizlaritzako azterketa egin beharra izan zuen Iruñean abuztuaren 30ean. Eta pixkanaka, 1929. urtean, herrietara irteten hasi zen. Lehendabiziko lekuak Baztango Berroeta, Anitz eta Gartzain izan ziren; geroxeago,



Aralarko San Migel. Ondoren, Nafarroan eta Gipuzkoan batez ere, baina Bizkaia eta Araban ere jardun zuen. Beasaingo Arriaran auzoan, abertzaleen bilera batean ere sermoia egin zuen.

Azkeneko hitzaldiak Azpeitiko Loiolan egin zituen, Euzko Gudarosteko lehendabiziko kaperau izanik; hain zuzen, gudarientzat.

Leku hauetako batzuetan hitzaldi saila egin zuen; Oartzunen adibidez, 1934ko martxoaren 17tik 26ra bitartean 24 eta 3.000 entzule ba omen ziren.

Hitzaldi gehienak euskaraz ziren eta berauen laburpenak, bederik, idatzita eta gordeta zituen baina, gerra hastean *guda-santuzaleak* erre egin zituzten beste idazki eta liburuekin batera.

Beste nonbait aipatu badugu ere, hitz jario handikoa izan zen euskaraz, gaztelaniaz nahiz frantsesez. Horren argibide gisa, Euskal Herri-tik alde egin behar izan zuenean eta Akitania-ko Tolosan jarri bizi izaten, 1936ko urriaren 22an egin zuen frantsesezko lehenengo hitzaldia: *La profession religieuse sacrifie d'holocauste* izenekoa.

Euskal kultura

Lekarotzen piztutako txingarra areagotzen joan zitzaion eta 1919. urtean hasiko da bere euskarazko lantxoak idazten eta, han eta hemen, argitaratzen. Altsasura joan zenetik, gurasoei euskaraz idazten zien. 1919an, Hondarribiara iritsi eta, arestian aipatu bezala, berehala haur euskaldunei katekesia euskaraz erakusteko agindua eman zioten. Elizkizunetako zenbait testu euskaratzeko ardura bere gain izan zuen. 1920ko otsailean Sarda y Sanvany-ren inauterietako otoitz batzuk euskaraz jarri zituen. Azpeitiko Laureano aitak agin-



Hainbat aldizkaritan hartu zuen parte

duta ere zenbait lan euskaraz egin zituen. 1920ko apirilean idatzi zuen, lehenengoz, hain zuzen, *Zeruko Argia*-n eta zuzendari izan zen 1934ko urritik, 1936. urtera arte. Gai gehienak erlijioaren ingurukoak izaten ziren.

Iruñean euskara irakasle zela egin zuen lehenengo olerkia 1923an. *Irujarrengo Prantziskotarraren* ardura ere bere gain izan zuen 1935eko urritik gerra bitarte eta 1925. urtean *Osasun-bidea* argitaratu zuen *Euskal Eснаlea*-n. 1930eko larrazkenean Donostiako *Novedades* antzokian *Euskal Eснаlea*-k antolatutako hitzaldia eman zuen *Errusiako jaurespide jazarpenaz*.



Garai hartan hasi zen herriz herri hitzaldi eta sermolaritzan. Baina euskarazko idazkuntza ez zuen baztertu. Badu ustez argitaratu gabe den idatzi ederra Geografia edo Ludiztiari buruzkoa. Bertan argi agertzen da Euskalerriari dion maitasuna. Ikus dezagun zertxobait:

Euskadi: Gure Aberriaren izen zarra Euskalerria da; iparraldeko euskotarrak Eskualerria esaten dutena. Euskalerria izenak (Eusko-ele-erria) euskeraren erria adierazten du. Gure Aberriaren alde batek galdu du Euskera eta badirudi ez dala Euskalerria.

Arana eta Goiritar Sabin argiak izen berria eman zion gure Aberriari, beronen bazter guztiak osokiago adierazi ditzakena: Euzkadi (Euskotar guzien taldea eta tokia). Eta Euskalerria izena oraindik ere euskeraz itzegiten duten errientzat utzi zuen.

Euskadi izena orain arte euskotarrak eta abertzaleak esaten zaienak bakarrik erabiltzen zuten; baiñan orain euskaltzale guztiak erabiltzen dute, naiz alderdi batekoak edo bestekoak izan. Orregatik egokia iruditzen zaigu izen ori erabiltzea.

Euskotarren izkuntza euskera da; eta euskera dakitenak euskaldunak.

Zeruko Argiaren zuzendari

Euskal kulturarako joera zela eta, 1933ko irailaren 21ean Gasteizko gotzainak horretarako baimena eman zion «prentsa katolikoan idatz zezan, baina gai politikoetan ez sartzekotan».

Donostian zenbait euskaltzale bildu zen Azkueren zuzendaritzapean 1936ko ekainean, eta euskararen batasunaren beharraz eztabaidatu ondoren, aditzaren batasuna egiteko agindua eman zioten. Gero, ordea, gerra zela-eta, bertan behera geratu ziren asmo haiek guztiak.

Hondarribia eta gerra zibila

Iruñeko kaputxinoetxea, Hondarribiako bezalaxe, guda aurrean euskararen bultzaleku zen, batik bat, Intzako Damaso kaputxinoari esker. Eusko Ikaskuntzak 1918an Oñatin egin-dako Biltzarraren ondorioa besterik ez zen; eta hala sortu baitzituen *Prantziskotarra* eta *Zeruko Argia*. Aita Bonifazio Ataunek ere izan zuen euskaigintza horretan parte. Langintza horrek eraginik, zerikusi handia izan zuen gerratearen hasieran. Eta agintariek eta eliz-buruek ere azkar jo zuten euskal kulturazale horien harrobi ziren Iruñea eta Hondarribiako komentuetara. Ordurako kaputxinoak



Hondarribia (1936). Erdiko ilaran eskuinetik bigarrena


«Euskal eliza» osatzeko pausoak ematen ari ziren.

Hondarribiako kaputxinoak Guadalupeko gotorlekura eraman zituzten milizianoek 1936ko abuztuan. Handik berehala, nazionalistek askatu zituzten, tartean Arrieta bitxi-zale donostiarra eta abar zirela.

Gerra hastean, gudarien kaperau izatea erabaki eta Loiolan izan zen; han osatu baitzen Euzko Gudalostea. Beste eginkizun batzuen artean, bikote bat ezkondu beharra ere izan zuen Loiolako santutegian; gudari bat neskatxa batekin, guda bizi-bizian zela. Irailaren 9an izan zen ospakizuna. Alde batetik Tomas Mitxelena Olano, 28 urtekoa, mekaniko elektrikaria, donostiarra, aita Aranokoa eta ama Azkaratekoa zituen eta, bestetik, Miren Edurne Hernandez Ibarzabal, 29 urtekoa, donostiarra, aita Zamorako Torokoa eta ama Tolosakoa zituen; lekuko gisa Inazio Alberdi eta Felix Oregi azpeitiarrak izan ziren.

Loiolako berri gehiago eta zehatzago H.I.O.-k emango digu: «Ez dira aztutzeko kontuak emen gaur idatzi bear ditudanak. Nik Aita Ataun Loiolan ezagutu nuan, Azpeitiako Jesu-lagundi etxian, gu lenengo gudariak sortu ta batu giñanian. Ez dira aztekoak! Ogei urte mardul aiekin ta odolaren berotasunak eraginda, andik irtetzen giñan mendira erreketek aien aurka. Gudarien lenengo kapellau zala, naiz ta denpora gutxian iraun. Neri batez ere gogoratzen zaizkidan uneak ziran, Aita Atau-

nen itzaldiak mendira joate bakoitzean. Izlari bikain ta yayua zan eta geren biotzak pizten zizkiguten itz eder aiek».



Aita Donostiarekin lankidetzan


Guda zabaltzen hasita zegoen eta Loiolako gudariak Saturraran aldera joanda zeuden. Joxemiel Barandiaran auzokide ataundarra ere han zen, Mutrikuko Jentilletxea koban ari baitzen indusketa-lanetan.

Joxemiel Barandiaranek, bere egunerokoan agertzen duen gisara, Mutrikuko *Frente Popular* delakoarengandik deia jaso zuen esanez, Jentilletxea aldera ez azaltzea komeni zela. Bitartean alde batetik irrati bidez eta, beste-

tik, udatiar batengandik (altxamenduaren aldekoa) eta San Pedro izeneko karabinero buruarengandik (altxamenduaren aurkakoa), informazio ona zuten Saturraranen elkartu zirenek; tartean zen, noski Imanol *Aita Bonifazio Ataun* ere.

Eta egoeraren larritasunaz oharturik, Joxemiel Barandiaran, Manuel Irujo eta Joseba Errezolarengana jo zuen irtenbide bila. Eta harreman haien ondorioz, irailaren 20an irten zen taldetxo bat itsasontziz Mutrikuko portutik. Bigarren taldean joan zen Aita Bonifazio Ataun Donibane Lohitzunera ihes, handik Baionara joateko. 1936ko urriaren 24an Okzitaniako Tolosan da. 1936ko azaroaren 13an lortu zuen Frantziako pasaportea «traseunte» gisa Europara bidaiatzeko. Pasaporteko datuen arabera: 35 urte, altua, ile beltza eta kolore sanokoa.

Ordurako euskal kulturaren munduan murgilduta zebilenez, Parisen Eusko Jaurlaritzak argitaratzen zuen *Euzko Deia*-n hasten da poematxoak azaltzen. Hona Parisetik Euzko Jaurlaritzako ordezkarietatik 1937ko ekainaren 9an igorri zioten gutuna: «Zuk bialdutako lanak, arras egokiak dira ta jarrai leno bezela sarritan idazten, gure mintzoera berezi ontan. Guziagatik esker anitz igortzen dizkizugu lerro txiro aben bitartez ta aurrerantz lanean gogoz jarraituko duzun ustean, agur dagizugu».



Itzultzaile

Erbestera bidean

Erbestera bidea hartu ondoren, buruhauste eta korapilo handiak sortu zitzaizkion, batetik Aberriaren egoera gerra zela eta, bestetik berriz, kaputxinoburuek eta eliza ofizialak azaldutako joera, Francoren erregimenaren alde jarritz edo ez bata eta ez bestea; ondorioz, alde jarritz. Sutu egiten zuen egoera lasgarri hark eta ezin egonean zebilen hainbeste axolagabekeria sumatuz. Ezin zituen lotu eta onetsi, fedea eta frankismoa bateragarri egiten zituztenak, nahiz eta erlijiosoak izan. Eta halaxe adierazteko ez zuen mingainean enbarazurik izaten; egiazalea zen, inor bazen.

Erbestera bidean, fedeari atxiki, Lourdesera joan zen. Iritsi eta Gudarostearentzat laguntza eta Aberriarentzat bakea eskatu zituen.

Leizaolaren burubidez, Euskadiko Jaurilaritzako Justizia eta Kultura Sailak Kataluniara bidali zuen 1937ko martxoaren 29an, Espainiako kontsulari baimena eskatu ondoren: «Ruégole con el mayor encarecimiento facilite pasaporte a Don Manuel Apalategui residente accidentalmente en esa. Se trata de persona de absoluta confianza que ha dado pruebas más que suficientes de afecto a nuestra causa. Lleva para Cataluña misión especial que le ha encargado el departamento de Cultura del Gobierno de Euzkadi».

Frantziako hiritar agiria lortzen du 1937ko abenduaren 15ean eta Okzitaniako Tolosan bizi da baina osasunez pattal samar. 1938ko

azaroaren 22an G. Dardeene medikuak egin-dako txostenaren arabera, gaitz kutsakorrik ez du.

Ipar Euskalerriratu ondoren, kaputxinoek Okzitaniako Tolosarako egoitzara bidaltzeko bideak egiten dituzte. Han zenbait gorabehera izan zituen. Dirudienez, kaputxinoen buruzagitzako zenbaitek Altxamenduaren aldeko jarrera hartu bide zuten eta, horregatik, aita Bonifazio Ataunen jokabide abertzalea ez zuten, inolaz ere, ontzat hartzen. Hori zela eta, hainbat gutun, ez oso atsegin, idatzi zioten elkarri. Horietatik jaso daitekeenez, 1938ko urtarrilaren 29koan, hain zuzen, buruzagitzaren asmoa aita Bonifazio Ataun Argentinara bidaltzea «desterratzea» zen. Berak dioenez, oso egoera txarrean bizi da eta Kataluniako kaputxinoen buruak ordaindutako kaleko jantziz dabil. Eta zera gogorarazten dio kaputxinoburuari: badakiela bere haserrearen arrazoa, hau da, zenbait jenderi laguntzea.

Otsailaren 12ko gutunean hara zer adierazten dion aipaturiko agintariari: «Sekulan ez nuen sinetsiko horrelako maltzurkeriarik, txarkeriarik eta azpikeriarik inork izan zezakeenik. [...] Negar egiten dut Ebanjelioaren eta frantziskotarren egiazko izpirituaren kontrako hainbeste ikuskizun negargarrirekin. Gauza asko eta oso saminak kontatuko nizkizuke, baina ez da horretarako garaia. Erabakia dago denok Kristoren auzitegian eman beharko dugula kontu».

Tolosan eman zuen denboraldian ere idatziz lasaitzen zuen bere burua.

Armiarma bizi zait
ormaren txuloan
sarea egiten dit
goizero leioan

Xomorroaren lana
aizeak ondatu
amaumatxoak berriro
sarea edatu

Urtebetez gauero
amauma iduri
sarea eo dizut
pozez ta urduri

Aberri-miña nizun
sare eotzalle
garaikunde ustea
aren edatzalle


Berri txarrak egunez
urratu sarea
orra nere gogoa
uste on gabea

Urrengo berri onak
biotza suspertu
ametsez uste gozoz
eungintza berritu

Ene armiarmatxo
jarrai eungintzari
erbestea gozatu
nere biotzari

Martxoaren 12ko gutunean, Frantziako egonaldi atseginaren berri emateaz gain, zenbait gotzain, Verdier, Lienart, Gerlier, Feltin, Saliege eta hainbat teologolari, Bruno de Solages, Maritain etabar aipatzen ditu; dirudienez, kaputxinoen buruzagitzari, zeharka bederen, kritika egiteko.

Okzitaniako Tolosan gripea harrapatu zuen eta bitartean Argentinarako pasaporte egi-teari ekin zion. 1938ko abenduaren 7an Marsellatik irten zen Ameriketara. 27an iritsi zen Buenos Airesa.



Gerra-garaia: Katalunyarako bide-agiria


Argentinan

este kaputxino asko bezalaxe, Elias Labiano ere 1936an joan zen Argentinara. Lehendik eta han ere harreman handia izan zuen aita Bonifazio Ataunekin. Hona ataundarrari buruzko iritzia: euskaltzalea, zuzena, zuhurra eta begirune handikoa.

Argentinan apaiz-lanari lotu zitzaion, baina antolaketa eta idazkuntza ahaztu gabe. 1938ko abendutik 1948ko urtariler bitartean Buenos Aires hiriko Nueva Pompeya izeneko parrokia handian jardun zuen lanean, erretore eta sermolari gisa. 1948ko urtariletik



BIAEV aldizkaria



BIAEV-eko zuzendari Argentinan

1951kora, berriz, Cordoba hiriko elizan jardun zuen eginkizun beretsuetan eta Ekintza Katolikoko gotzaitegiko aholkularitzan.

Berrir, 1951ko urtarrilean Buenos Airesa itzuli eta 1956ko abendura arte sermolari eta hizlari gisa aritu zen, gehienbat. 1956ko abenduan, ordea Mendoza herrialdeko Godoy Cruzean arituko da 1957ko urtarrilera bitartean, besteak beste, erretore gisa.

Handik berriro Cordobara itzuli zen 1957ko otsailean eta 1960ko urtarrilera arte eta,

azkenik, Buenos Airesa, harik eta 1977ko urrian Euskal Herrira itzuli zen arte. 1961etik 1977ra arte Argentinako Ekintza Katolikoko aholkulari ere izan zen.

Buenos Airesko jostunen Sindikatuko aholkulari moral eta Argentinako Jostungintzako Langileen Federakuntzaren sortzaile eta aholkulari ere izan zen.

Iritsi berritan, Filosofia Fakultatean euskarari buruzko hitzaldi-sorta eman zuen 1939tik 1941era bitartean Buenos Airesko Apaiztegi-



Argentina (1944). Beheko ilaran ezkerretik lehendabizikoa

ko Moral irakasle izan zen. Eta 1941etik 1947ra arte, Emakumezkoentzako Goi Mailako Institutuan Erlijioen Historiako irakasle. Tarteka handik eta hemendik deituta, hizlari lanetan ere asko aritzen zen.

Ekintza Katoliko arduradun nagusi izanik, *Credo eta Anhelos-Diálogos* izeneko aldizkarietan parte hartzen hasi zen. Gerora, hainbat aldizkari sortu zuen.

Instituto Americano de Estudios Vascos buletinean hainbat bertso eta olerki idatzi ez ezik, euskal kultura eta historiaren inguruko lan asko argitaratu zuen. Eta urte asko eman zituen aldizkariaren zuzendaritzan.

Argentinako euskal etxeetan ere hitzaldi asko egin zituen; adibidez, Mendozan Euskararen Egunean 1956. urtean.

Bihotza lasatzeko bidea izaten zuen Aberria aipatu eta goratzea. Otoitzean ere gogoan zuen Euskalerrria; *Euzkadiri Otoitza* izeneko olerkia lekuko. Baina alegien bidez ere agertzen du bere ezinegona eta haserre; adibidez, *Asto errena eta otso perratzallea* izenekoan:

Munduan beste asko bezela
gure astoa larrean.
Ustekabean agertu zaio
Otso gosea urrean...



Argentinan elizgizon eta agintariekin

Euskalerrira bidean

Aita Florentzio Artabia kaputxino burua Madrilén izan zen, 1961ean, aita Bonifazio Ataunen egoera jakiteko asmoz. Aita Bonifaziok dioenez, ez omen zioten oso tratatu ona erakutsi eta minduta zegoen.



Iparraldeko Getarian (1961). Etxera itzultzea debekatuta


Hala ere, Euskal Herriratzeko asmoz-edo, Europara etorri eta Cannes-en lurreratu zen. Espainiako kontsulatuan emandako pasapor-tea zuela etorri ere, inongo eragozpenik gabe, 660 pezeta ordaindu ondoren. Lehenago erromes sail batekin etorri nahi izan zuen, baina galarazi egin zioten. Eta oraingoan ere bai. Hori horrela, Erromara joan eta handik idazten dio Iruñeko kaputxinoburuari, jasotako gutunari erantzunez. Ordurako Espainiako

konsulatuan emandako pasaporte argentinarrak bazuen. Kontsulatuan bere aurka ez zegoezela ezer adierazi omen zioten. Hala ere, berak jakin ahal izan zuenez, 1954ko ekainaren 15eko aginduz «Prohibida la entrada aunque lleve pasaporte en regla» eta Parisen ere bazen antzeko zerbait «Prohibición otorgar visado».

Kaputxinoen buru zen aita Aurelio Laita Maneruk Madrilgo «Ministro de la Gobernación» delakoari idatzi zion 1971ko maiatzaren 19an, aita Bonifazio Ataunentzat pasapor-tea eskatuz, familiarteko baten osasun txarra zela-eta. Garai hartan Argentinako pasapor-teaz Erroman zegoen. Eta etxera itzuli nahi zuen.

Argentinan zela, apaizgintzako 50 urteak ospatzeko, berealdiko omenaldia egin zioten, 1977an, Nueva Pompeyako eliza nagusian. Erromatik ere jaso zuen zoriona, Pascual Rywalski buruaren izenean.

Etortzeko irria, ordea, areagotzen ari zitzaion. Bazekien, bestalde, Espainian amnistia hotsak bazirela. Eta Iruñeko kaputxinoburuari idazten dio: «Amnistia giro honetan, fraile txiro hau, 1936ko gerra zela eta, Ordenako nagusiek erbesteratutako fraileentzat amnistia eskatzen dizut, apalki. Anaidiko nagusiek ezarritako desterruan hil naizela inork esaterik ez nuke nahi, gizatxar doilor bat naizelako amnistiarik ere merezi ez nuelako. Zuregan-dik amnistia lortzen badut sorterrira itzuliko



Zahartzaroan desterrutik Euskal Herrira

naiz; bestela, hementxe hilko naiz nire desterru bikoitzean». Kaputxinoburuak ondo hartu zion asmoa eta nahi zuenean etortzeko erantzun.

Argentinatik 1977an itzuli eta berriro, Euskal Herriko kultur munduan murgiltzen hasten da, Manuel Lekuonaren omenezko idazki-bilduman parte hartuz, *Areizaga apaizaren egoaldeko ibillerak* izeneko 12 orrialdeko lanarekin; Kardaberaz Bilduman argitaratu zuten.

Atzerritik itzultzean, Donostiako kaputxinoetan bizi izan zen. Bere eginkizuna, batik bat,

aitortza edo konfesio-lana izaten zen. Hiru urtetan 46.111 aitortza entzun zituen. Bada zer bait.

Euskaltzaindiak 1979ko maiatzaren 25ean Iruñeko egoitza berria inauguratu zuen eta, bide batez, euskararen inguruan egindako lanagatik, lau euskalzale nafar omendu zituen: Juan Etxamendi *Bordel* Luzaidekoa, Prudentzio Hualde Mayo, Bidangotzekoa, Zelestino Peralta, Kaparrosokoa eta Joxe Iturria Arantzakoa. Azken honi buruzko hitzaldia aita Bonifazio Atauni egokitu zitzaion. Joxe Iturriak *Euzkadi* egunkarian eta *Zeruko Argia* aldizkarian idatzi zuen. Kaputxinoa izanik, aita Bonifaziok ezaguera handia zuen, elkarrekin bizi izan baitziren Lekarotzen, Hondarribian eta Altsasun. Hitzaldia burutzeko Lekarotz eta Iruñeko artxibategietan jardun zuen.

Euskadi Irratian, 1983an, egindako jardunean, gure arteko gorabeherak aitortu ondoren, elkartasunerako eta itxaropenerako deia egin zigun: «Gizonok oso ezezkorrak izan ohi gera. Gerren garaiko zoritxarrak bakarrik minduko bagintuzte bezala; gaur alde guztietan eta gure inguruan dakuzkigun gauzak ikusi eta entzunda ikara-dardara sartzen zaigu bihotzaren muinetaraino. Baina gizadiari bere hasieratik begiratzen baldin badiogu, gizaldiak izan ditu aldi larriak, beltzak, ikaragarriak, guztia hondatzera zihoala ematen zutenak. Euskal Herrian bertan, bai aspaldietan ez zen horrelako girorik ikusi gure artean, baina izan ziren garaiak, beharbada, ikaragarriagoak.




Ataundar erlijiosoen bilkura (Artxueta mendia. Aralar)



Joxemiel Barandiaranen auzotar eta adiskide. San Migel (Aralar)

Euskaldunok, euskotarrak, anai-arrebak gara! Gizaki guztiok bai anai-arrebak gara. Baina euskotarrok badugu senidego berarizko bat; anai-arrebak gara, senideak gara, eta bata bestearen senide bezala maite izan behar dugu. Euskaldunak izan gaitezen beti anaia, senide, bakea... eta gora dezagun gure sorterria eta gora dezagun gure aberria».

Donostian hil zen 1984ko abuztuaren 17an, goizeko 6'30etan, 83 urte zituela eta horietatik 65 urte erlijio-lanetan. Hilobiraketa bihar-muneari egin zen goizeko 10'00etan Donostiako Polloe hilerrian, kaputxinoek



Euskararen batasun berriarekin ez dago ados



Azkeneko urteak Donostiako Kaputxinoen etxean

duten hilobian eta hileta elizkizuna 12'00etan izan zen Kaputxinoetan; 28 apaizek eman zuten meza.

Argigarria da J.J. Azurtzak, elizkizun hura zela-eta, DV-n 1984ko abuztuaren 19an idatzita-koa: «Bere illetak eliza bete jendez egiñak dira: Bai Aita Boni berbera, eta bere sendikoak ere, oso maite izan ditu beti Ataun'go erriak. Zergatik ote? Gauza erreza da erantzuten. Bai bera eta bere senideak ere, beti erriangandik eta erriko gauzetatik bertan ibilli diralako. Aita Ataun berak euskera izan du bere bizitzako amets».

Goiz-Argi aldizkariaren 1984ko abenduaren 15ean ere, bere aipamena egiten da: «Euskalerri itzultzean, giro gozoagoa aurkitzea uste zuan ziurki eta bestelakoaren aurrez-aurre gertatu izanak, onik ez zion batere egin bere lanerako. Benetan euskera onaren aldekoa ta zalea zan gure euskaltzale aundi au; emen bestelako idazketa asko, landu gabe ta gozatu gabeko euskera aurkitu izanak, min aundia eman zion. Ala ere baditu zenbait gauza emen Goiz-Argi-n idatziak. Izango ote du jarraitzaillerik kaputxinoen artean?».

Kazetaritza

1926an, *Zeruko Argia*-ren hitzaldiak apaintzea bere gain hartu zuen; lehen Lizartzako Ander A-ren esku zena.

1934ko urritik 1936ko uztaile arte, *Zeruko Argia* eta *Irugarrengo Prantziskotarra* aldizkariaren zuzendari.

1965etik 1977ra arte *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*-eko zuzendari. Euskaraz nahiz gaztelaniaz artikulua anitz.




Aita Bonifazio Ataun eta Segundo Dorronsoro

El Círculo (Círculo Católico de Obreros de Nueva Pompeya) Buenos Airesko hileroko aldizkariko zuzendari eta ia idazle bakarra 1939tik.

La Orden Tercera de Penitencia (Venerable Orden Tercera) Buenos Airesko aldizkariko zuzendari eta erredaktore 1942ko maiatzetik 1953ko abendura arte.

Paz (Parroquia del Sagrado Corazón de Jesús) izeneko Cordobako buletineko zuzendari eta idazle.

Enhebrando (Órgano mensual de la Federación del Sindicato de Costureras) hileroko aldizkariaren sortzaile 1946an. 1948ko martxotik 1950eko abendura arte eta 1957ko apiriletik 1960ko otsailera arte.



Buenos Airesko *Nueva Pompeya* (Santuario de Nueva Pompeya de Buenos Aires de los Padres Capuchinos) izeneko hileroko aldizkariaren zuzendari eta artikulugile, 1952ko apiriletik 1954ko maiatzera arte.

Buenos Airesko *Boletín de la Parroquia de Nuestra Señora del Rosario de Nueva Pompeya* hileroko zuzendari, 1969ko martxotik 1974ko abendura arte.

Fraternidad T.O.F. hileroko orrien zuzendari eta idazle, 1964ko urtarriletik 1974ko abendura arte.

Zeruko Argia, Argia'ren Egutegia, Euzkadi, Euzko-Deia, Euzko-Gogoa, Eguna, Goiz-Argi, Lecaroz, Euskal Esnalea, Euskera, Txistulari, Iru-garrengo Prantziskotarra, Diario Vasco, Yakintza eta abarretan ditu barreiaturik bere lanak.

Idazterakoan, berriz, ezizen hauek erabili zituen: A.B.A., Annintzan, Aritzondo, Ariznoa, Arrategibel, A'tar Imanol, Arratibel'dar Jose Andoni, Ataun kaputxinoa, Baratzuri, Basajaun, D.E., Deunoro, Ereñotzu, D.J.F. Eldelodelajoc, Ekain, F.B., Fr. Catholicus, Gautxoritxo, Gudariarteko, Imanol, Irular, Imanol de Sabiaga, Javier de Ituzaingo, Legatemendi, Muskuldiko kukua, O'tar A., P.B., Prantziskarra, Sabiaga, Usunbeltzeko Iñaki, Iñaki, Z.O. eta abar.

BIAEV-en euskararen bultzatzaile

Liburu eta idatziak

Aita Donostiaren hainbat konposaketari hitzak jarri zizkion.

Erriarentzat Liturgia. Aste Nagusia. 1931. Iruñea
Egiatzko Jainkoa antzerkia. 1932.

Asis'ko Frantzisko deunaren Bizitzatxoa. 1932. Iruñea.

Asisko Beartsu Maitalea. Itzulpena. Argitaratu gabea. 1933.

Euskal Irakaspidea. Gramática del euskera. Arrigarai-Ataun. 1932. Donostia.

Amal. Itzulpena. R. Tagore. Yakintza. 1934.

Argentinaren Independentzia jaso den Tucumaneke akta. Itzulpena.

Gure aditza. El verbo vasco. 1960. Buenos Aires.

Aita Jose Iturria Erize, kaputxinoa. Euskera. Euskaltzaindia. 1979.



Gramática del euskera. B. De Arrigaray



Gure Aditza

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *P. Apalategi Fondoa. Nafarroa, Kantabria eta Aragoiko Kaputxinoen Artxibategia. Iruñea*
- *Bixenta eta Jexux Apalategi senideak. Donostia*
- *Juan Zumarraga. Kaputxinoak. Donostia*
- *Tarsicio de Azcona kaputxinoa. Iruñea*
- *KM liburutegia. Donostia*
- *Joxe Maria Eguren Oregi. Azpeitiako Parrokia. Azpeitia*
- *Elias Labiano kaputxinoa. Iruñea*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2003ko urria

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: Gráficas Varona, S.A.
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

Inprimaketa: Gráficas Varona, S.A.
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

ISBN: 84-457-2021-X (Lan osoarena)
84-457-2023-6

L.G.: S-***-2003